Euskadiko Energia Egoera

28/12/2011

Energia kontsumoa EAEn













Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea
Orotara, azaroan kontsumitutako elektrizitateak %6,2 egin zuen behera, 2010. urteko hil berean izandakoaren aldean. Urteko metatuari dagokionez, kontsumoa %1,9 jaitsi da.

Kontsumoak industrian %7,9 egin zuen behera azaroan. Hala, jaitsierarik handiena zementu, kare eta igeltsugintzan izan zen (-%36,2); horren ondoren, ehungintza (-%16,5) eta siderurgia (-%11,3) datoz. Aipagai dugun hilean ez zen kontsumo igoerarik izan alor bakar batean ere.

Azaroan, bizitegi arloan kontsumoa %6,7 jaitsi zen eta zerbitzu alorrean %0,4. Urteko metatuaz, bizitegi arloan kontsumoak %1,6 egin zuen behera, eta zerbitzu alorrean %0,3.

Gas naturala
Gas naturalaren kontsumo konbentzionalak %15 egin zuen behera azaroan, 2010eko azaroan izandakoarekin alderatuta.

2011ko metatuan, guztizko kontsumoa %15 jaitsi zen, iazkoaren aldean. Zentral termikoen kontsumoak %44 egin zuen behera; kontsumo konbentzionalak, aldiz, bere horretan jarraitu zuen.

Erregaiak garraioan
Erregaien kontsumoa %1,5 jaitsi zen urrian, 2010eko hil berean izandakoarekin konparatuta. Urteko kontsumo metatuak %0,9 egin du behera (gasolioak lehengo mailari eutsi dio eta gasolinarena %5,8 jaitsi da).

Iturriak: EEEk prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Euskadiko Energia Egoera

28/12/2011

Kanpoko Egoera













EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
Munduan petrolioaren kontsumoak gora egiten jarraitzen du eta 89,2 Mbpd iritsi da.
Azaroan, AEBetan %1,4 egin zuen behera kontsumoak, eta Europar Batasunean %3,1. Txinan, ordea, 5,3 egin zuen gora.

Munduan, orain arte, 2011ko batez besteko kontsumoari dagokionez, %1,3 igo da, 2010eko aldi beraren aldean; Europan %1,5 eta AEBetan %1,3 jaitsi da. Txinan, berriz, %7,4 igo da.

Energiaren kontsumoa Espainian
Espainian, azaroan, gas naturalaren kontsumoak %16 egin zuen behera, 2010eko hil berean izandakoarekin konparatuta. 2011ko metatutako kontsumoa %6,5 jaitsi da.

Azaroan, elektrizitatearen kontsumoak %6,8 egin zuen behera, eta 2011ko metatutakoa %1,4 jaitsi da.

Garraioan, erregaien kontsumoak %6,1 egin zuen behera urrian, 2010eko epe berarekin erkatuta (%4,3 metatuan); gasolinen kontsumoa %6,2 jaitsi zen, eta %6,1 gasolioen kasuan (%6,5 eta %3,7 urteko metatuan, hurrenez hurren).

Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoa %1,2 igo zen urrian eta %8,8 urtean.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta JODIren datuetan oinarrituta.

Euskadiko Energia Egoera

28/12/2011

Energiaren prezioa













EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren prezioa
Azaroan, Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 110,5 $ (81,4 €) izan zen. Urtean batez besteko prezioak %40,1 egin zuen gora, aurreko epealdian izandakoaren aldean (%34,3 eurotan).

Gas naturalaren prezioa
Spot (UK NBP) gas naturalaren prezioa %19,0 igo zen azaroan, 2010eko hil berean izandakoarekin erkatuta (23,16 €/MWh). Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioak %20,4 egin zuen gora urrian, iazko hil horretan izandakoaren aldean (26,8 €/MWh).

Ikatzaren prezioa
Ikatzaren prezioa azaroan 114,8 €/t CIF ARA izan zen; hori horrela, azken hamabi hilabete hauetan %7,9 igo da.

Elektrizitatearen prezioa
OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioak %18,2 egin zuen gora azaroan, urtebete lehenago izandakoaren aldean, (48,38 €/MWh).

Erregaien prezioa
EAEn, gasolioaren prezioa 1,29 €/l izan zen azaroan; gasolinarena, berriz, 1,28 €/l. 2008. urteaz geroztik, gasolioaren prezioa gasolinarenaren gainetik jarri zen. Iazko hil berean izandakoekin alderatuta, prezioak %17,4 eta %9,9 igo ziren, hurrenez hurren.

CO_2-ren prezioa
CO_2-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 9,5 €/t izan zen azaroan; 2010eko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %35,9 egin zuen behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, eta BAFAren datuetan oinarrituta.